



# URTEKARIA ANUARIO

---

20 FOTOS DEL 24  
ARGAZKI KOAK



1

## Caja Popular Mexicanak Mondragon Unibertsitatea proiektuarekin bat egin du



Bi erakundeek aliantza bat sinatu zuten “herrialdean kalitate handiko goi mailako hezkuntza sustatzeko, Mexikoko maila akademikoa eta produktiboa hobetzen laguntzeko”.

## Caja Popular Mexicana se une al proyecto Universidad Mondragón México



Ambas entidades firmaron una alianza con el fin de “promover la educación superior de alta calidad en el país, contribuyendo a mejorar el nivel académico y productivo en México”.

## Aurrenaken 50. urteurrena



Efemeridearen harira, proiektu kooperatiboaren sortzaileak omendu zituzten. Aurrenakek, Euskal Herrian eta Mexikon ditu ekoizpen lantegiak, eta automozio sektoreko erreferentea da moldeen eta tresnen diseinuan eta fabrikazioan.

## Aurrenak celebra su 50 aniversario



En el marco de esta efeméride homenajeó a los fundadores del proyecto cooperativo. Aurrenak, con plantas productivas en Euskadi y México, es un referente del sector automotriz en el diseño y fabricación de moldes y utillajes.

2







3

**Nature aldizkari ospetsuak MONDRAGON jarri du adibidetzat**



Nature aldizkariak MONDRAGON nabarmendu zuen martxoan (627. alean) eredu gisa, “soldata ekitateagatik eta ingurumenarekiko konpromisoagatik, berdintasunak jasagarritasuna bultzatzen duela erakutsiz”.

**La prestigiosa revista Nature pone a MONDRAGON como ejemplo**



La revista Nature resaltó en marzo a MONDRAGON (en el número 627) como modelo “por su equidad salarial y compromiso ambiental, demostrando que la igualdad impulsa la sostenibilidad”.



4

**Gipuzkoako Bazkondeak aitortza egin dio MLAKoop-i**



MLAKoop-i Zerbitzu Enpresa Saria eman zioten 2024ko Gipuzkoako Enpresa Sarietan.

**MLAKoop reconocida por la Cámara de Gipuzkoa**



MLAKoop fue galardonada con el Premio Empresa de Servicios en el marco de la edición 2024 de los Premios a la Empresa de Gipuzkoa.

### Danobatek 20 milioi euro inbertitu ditu fabrika berrian



70. urteurrenaren testuinguruan, sektore aeronautiko eta eolikoko enpresen eskaerari erantzuteko 12.000 metro koadroko instalazioak inauguratu zituen.

### Danobat invierte 20 millones de euros en una nueva fábrica



En el contexto de su 70 aniversario, inauguró unas instalaciones de 12.000 metros cuadrados acondicionadas para responder a la demanda de las empresas de los sectores aeronáutico y eólico.

5



### Dikar-ek ekoizpen planta berria inauguratu zuen Arrasaten



Kooperatibak 2024an ekin zion jarduerari Arrasaten (Gipuzkoa) 26.000 metro koadroko fabrika moderno batean, eta etapa berri bat ireki zuen, 'Reload', kirol ehizaren nazioarteko merkatuan duen posizioa sendotzeko.

### Dikar inaugura su nueva planta de producción en Arrasate



La cooperativa inició en 2024 su actividad en Arrasate (Gipuzkoa), en una moderna fábrica de 26.000 metros cuadrados. Abre una nueva etapa, 'Reload', para consolidar su posición en el mercado internacional de la caza deportiva.

6







7

**MONDRAGONek Bilbon egin zuen urteko Kongresua**



Ekitaldian, MONDRAGONeko Kontseilu Orokorreko buruaren erreleboa irudikatu zen –Iñigo Ucinék Pello Rodríguez-i eman zion lekukoa –, eta Politika Sozioenpresariala onartu zen, 2025/2028 laurtekorako bide orri berria.

**MONDRAGON celebra en Bilbao su Congreso anual**



En el evento se escenificó el relevo al frente del Consejo General de MONDRAGON, –Iñigo Ucin cedió su puesto a Pello Rodríguez– y se aprobó la Política Socioempresarial, nueva hoja de ruta para el cuatrienio 2025/2028.



**Pedro Sanchez MONDRAGON Kunshan parkean, Txinan**



Oskar Goitiak eta Nerea Aranguren, MONDRAGON Internacionaleko presidenteak eta MONDRAGONeko Makina Erremintaren eta Automatizazio Industrialaren dibisioetako zuzendari nagusiak, Anaitasuna baserrian hartu zuten Sanchez. Ondoren, Fagor Arrasatek parkean duen lantegia bisitatu zuten.

**Pedro Sánchez en el Parque MONDRAGON Kunshan, en China**



Oskar Goitia y Nerea Aranguren, presidente de MONDRAGON Internacional y directora general de las divisiones de Máquina Herramienta y Automatización Industrial de MONDRAGON respectivamente, recibieron a Sánchez en el caserío Anaitasuna. Posteriormente visitaron la planta de Fagor Arrasate en el parque.



**Laboral Kutxa, Estatuko bigarren bankurik onena, Forbes aldizkariaren arabera**



Zerrendako lehen postuan Openbank dago, eta hirugarren eta laugarren postuan daude, hurrenez hurren, Bankinter eta BBVA.

**Laboral Kutxa, segundo mejor banco del Estado, según la revista Forbes**



La lista la encabeza Openbank, mientras que Bankinter y BBVA figuran en tercer y cuarto puesto, sucesivamente.







10

### Cocoon Biosciencek jarduerari ekin zion

Enpresa bioteknologikoak 15 milioi inbertitu ditu Bizkaiko Parke Teknologiko eta Zientifikoan duen zentro berrian, eta bertan proteina errekonbinanteak fabrikatzen hasiko da, osasunaren (terapia aurreratuetan eta txertoak) eta nutrizioaren (haragi landua) esparruetan erabiltzeko. MONDRAGONen partaidetzarekin, intsektuetan oinarritutako proteina horiek industria mailan ekoizteko gaitasuna duen munduko lehen konpainia izango da.

### Cocoon Bioscience inicia su actividad

La empresa biotecnológica ha invertido 15 millones en su nuevo centro en el Parque Tecnológico y Científico de Bizkaia en el que comenzará a fabricar a escala proteínas recombinantes para su utilización en los ámbitos de la salud (terapias avanzadas y vacunas) y de la nutrición (carne cultivada). Con participación de MONDRAGON, será la primera compañía del mundo con capacidad para producir a nivel industrial esas proteínas en base a insectos.



11

### Izan zirelako gara, eta garelako izango dira

50 urteko historian presidente eta zuzendari nagusi izan diren pertsona guztiak omendu zituen Ikerlanek. Arrasateko Amaia Antzokian egin zen ekitaldia, eta han izan zen Gipuzkoako diputatu nagusi Eider Mendoza, besteak beste.

### “Izan zirelako gara, eta garelako izango dira”

Ikerlan homenajeó a todas las personas que han sido presidentes y directores generales en sus 50 años de historia. El acto tuvo lugar en el Teatro Amaia de Arrasate, donde estuvo presente, entre otras, la diputada general de Gipuzkoa, Eider Mendoza.





### MUNDUKIDE: lasterketa solidarioak bere marka hautsi du



Azaroan Mundukideren lasterketa solidarioa egin zen Urkuluko urtegian (Aretxabaleta, Gipuzkoa). Parte-hartzea inoizko handiena izan zen: 22 kooperatiba, 47 talde eta 330 lagun baino gehiago korrika. Irabazle nagusia, beste behin ere, elkartasuna izan zen.

### MUNDUKIDE: la carrera solidaria bate su propio récord



En noviembre se disputó la carrera solidaria de Mundukide en el embalse de Urkulu (Aretxabaleta, Gipuzkoa). La participación fue la más alta de la historia, con un total de 22 cooperativas participantes, 47 equipos y más de 330 personas. La gran ganadora, una vez más, fue la solidaridad.

12



### Matrici, likidazio fasean



Urteko albisterik tristeenetako bat izan zen. Trokelgintza sektorearen egiturazko krisi luzeak eta lan karga lortzeko zailtasunek behartu zuten kooperatiba likidazio fasea irekitzeko eskatzera. Matriciko pertsonak eta zuzendaritza taldeak etengabeko ahaleginak egin arren, ez da kooperatiba bizirik mantentzeko aukerarik izan.

### Matrici, en fase de liquidación



Fue una de las noticias más tristes del año. La larga crisis estructural del sector de troquelaría y las dificultades para conseguir carga de trabajo, obligaron a la cooperativa a solicitar la apertura de la fase de liquidación. Y todo ello a pesar de los esfuerzos continuados de las personas de Matrici y de su equipo de dirección.

13





14

**400 lagunetik gora  
MONDRAGON Foroaren  
XII. edizioan**



Garrantzi estrategikoa duten gaien inguruan elkarrekin hausnartzeko urteroko topaketan, 2025-2028rako ibilbide orriaren ardatz estrategikoei buruz egin zen gogoeta. Pradales lehendakariak itxi zuen jardunaldia. Elkarren arteko lankidetzaz ariketa bikaina.

**Más de 400 personas  
en la XII edición del foro  
MONDRAGON**



En el encuentro anual de reflexión conjunta sobre temas de relevancia estratégica, se profundizó en los ejes de la hoja de ruta 2025-2028. El lehendakari Pradales cerró la jornada. Un excelente ejercicio de intercooperación.







15

### Eroski Consumer, 50 urte kontsumitzaileak zaintzen



Nazioartean ospe handiko erreferentea da kontsumo arduratsu eta jasangarrirako informazio zorrotzean, eta Estatuko kontsumo atari garrantzitsuenak da, urtean 70 milioi bisita baino gehiago izaten baititu. Donostiako Kursaalak 50. urteurreneko ekitaldia hartu zuen azaroan.

### Eroski Consumer, 50 años cuidando a los consumidores



Referente de prestigio internacional en información rigurosa para un consumo responsable y sostenible, es el portal de consumo más importante del Estado con más de 70 millones de visualizaciones anuales. El Kursaal donostiarra acogió en noviembre el acto del 50 aniversario.

### Konfortaren merkatura itzuli da Fagor



Sareteknikak eta Fagorrek, *Fagor* markaren lizentziamendu akordioa sinatu zuten, *comfort* sektorerako produktuak merkaturatzeko, hala nola gas galdara muralak, termo elektrikoak, aire girotua edo aerotermita. Argazkian, Roberto Corera (Sareteknika) eta Joxean Alustiza (Fagor Taldea).

### Fagor vuelve al mercado del confort



Sareteknika y Fagor firmaron un acuerdo de licenciamiento de la marca *Fagor* para comercializar productos en el sector *comfort* como calderas murales de gas, termos eléctricos, aire acondicionado o aerotermita. En la foto, Roberto Corera, de Sareteknika, y Joxean Alustiza, del Grupo Fagor.

16







# 17

## Orbea eta Lotto Dstny, txirrindularitzarekin konprometituta

Elkarren eskutik urtebeteko ibilbidea egin dute Orbeak eta Lotto Dstny-k. Tarte honetan esperientziak eta ezagutza partekatu dituzte txirrindularitzarekiko grinetik abiatuta. Eta hortik etorri dira, gero, garaipenak: 25 guztira, horietatik bat Frantziako Tourrean. Dagoeneko aurkeztu dituzte 2025erako diseinu, ekipamendu eta ilusio berriak. Zorte on bidean!



## Orbea y Lotto Dstny, comprometidos con el ciclismo

Orbea y Lotto Dstny llevan ya un año pedaleando juntos. Han compartido experiencias y conocimiento desde su pasión por el ciclismo. Y de ahí han venido, luego, las victorias: 25 en total, una de ellas en el Tour de Francia. Ya han presentado nuevos diseños, equipamientos e ilusiones para 2025. ¡Suerte en el camino!







18

### MONDRAGON TFG-TFM sariak 2024



Inoizko parte hartzerik handiena izan zuen aurtengo edizioak, izan ere 57 unibertsitatetako 305 lan jaso baitziren orotara. Finala azaroaren 28an egin zen Soraluçeren Portal Factory-n (Danobatgroup), giro ezinhobean.

### Premios MONDRAGON TFG-TFM 2024



La edición de este año concitó la mayor participación de la historia, ya que se recibieron 305 trabajos de 57 universidades. La final, en un ambiente inmejorable, se celebró el 28 de noviembre en el Portal Factory de Soraluçe (Danobatgroup).



19

### Datu-zentroa Garaia Parke Teknologikoan



Arrasateko Garaia Parke Teknologikoa aukeratu da, ADI Data Center Euskadi buru, datu-zentro berri bat ezartzeko. ADI, enpresen eta erakundeen eraldaketa digitala laguntzeko sortu den erakundea da Euskadin, eta MONDRAGONek parte hartzen du bertan.

### Centro de datos en Garaia Parke Teknologikoa



El Parque Tecnológico Garaia, en Arrasate, es la ubicación elegida para la implantación de un nuevo centro de datos, liderado por ADI Data Center Euskadi, una entidad que nace para apoyar la transformación digital de empresas e instituciones en Euskadi y en la que participa MONDRAGON.





20

## LagunAro EPSVren etorkizuna argitu da

Urtea albiste positibo batekin amaitu zen, izan ere, Espainiako Ministroen Kontseiluak abenduaren 23an Errege Lege Dekretu bat onartu zuen, LagunAroren berezitasuna aitortzea dakarrena. Horrela, LagunAroren sistema zalantzan jartzen zuen egoera konpontzen da, Langile Autonomoen Gizarte Segurantzako kotizazio erregimen berriak zekarrena. Ministro Kontseiluaren erabakiaren ondorioz, ez zaie kotizazio eredu berria ezarriko RETAn sartuta dauden eta gainera sistema publikoaren osagarri den beste prestazio sistema kooperatibo (LagunAro EPSV, esaterako) baten parte diren kooperatibei. Era berean, kolektibo horrek hileko kotizazio oinarri bat kotizatu beharko du, taula orokorreko 1. tartearen gutxieneko oinarriaren parekoa edo handiagoa (947,71 euro 2025ean). LagunArok positibotzat jo zuen albistea.

## Se despeja el horizonte para LagunAro EPSV

El año concluyó con una noticia en clave positiva, y es que el Consejo de Ministros aprobó el 23 de diciembre un Real Decreto Ley (RDL) que supone el reconocimiento de la singularidad de LagunAro. De esta manera se soluciona una situación que ponía en cuestión el sistema de LagunAro tras la entrada en vigor del nuevo régimen de cotización a la Seguridad Social de los Trabajadores Autónomos (RETA). La decisión implica que a las cooperativas incluidas en el RETA que dispongan de un sistema intercooperativo de prestaciones sociales, complementario al sistema público (como es el caso de LagunAro, EPSV), no se les aplique el nuevo modelo de cotización. Asimismo, se establece que este colectivo deberá cotizar por una base de cotización mensual igual o superior a la base mínima del tramo 1 de la tabla general (947,71 euros en 2025). LagunAro ha valorado positivamente la noticia.



11

---

AHOTS



**Leire Mugerza**

MONDRAGONen Kongresuko eta Batzorde Iraunkorreko presidentea

**“Gizarte hobe bat sortzea, hori da gure utopia eta, gure inperfekzio guztiekin, utopia hori lurreratzen saiatzen gara”**



**Marijo Pagaldai**

Vicepresidenta de la División de Ingeniería y Servicios de MONDRAGON

**“No solo debemos ser tractores de talento internacional, sino también ser atractivos para el talento local”**



**Xabier Egibar**

Director General de LABORAL Kutxa

**“Seguimos creyendo firmemente que uno de los principales ejes de transformación social es la extensión de nuestra experiencia cooperativa, pues multiplica el impacto y distribución de la aplicación de nuestros recursos en la sociedad”**



**Iñigo Ucín**

Expresidente del Consejo General de MONDRAGON

**“He aprendido mucho. He estado rodeado de un equipo excelente, generoso, y he conocido muchas personas muy cooperativas. Valoración muy positiva. Ha sido una aventura apasionante”**







**Mikel Uribetxebarria**  
Fagor Ederlaneko presidentea

**“Batzar Nagusitan bada zer hobetu, bai kooperatibaren aldetik eta baita bazkideen aldetik ere”**



**Janire Ereño**  
Responsable de la Oficina de Empleo de Udalaitz S. Coop.

**“Nuestra meta es conseguir el mayor número posible de reubicaciones definitivas”**



**Pello Rodriguez**  
MONDRAGONeko Kontseilu Orokorraren presidentea

**“Gertutasuna bilatu nahi dut, elkarrekin lotura estuagoa izan dezagun”**





**Rosa Carabel**

Directora general de Eroski y de la División Distribución de MONDRAGON

**“El potencial que sumamos entre todos y nuestro privilegiado entorno me hacen ser muy optimista”**



**Miguel de la Fuente**

Doctor internacional por su tesis sobre el movimiento cooperativo en Euskal Herria

**“El legado cooperativo se percibe como un patrimonio colectivo que debe ser transmitido a las futuras generaciones”**



**Erika Lehr eta Andres Mazkarian**

Danobatgroup

**“Guztira 600.000 euro banatuko ditu Danobatgroup-ek, datozen hiru urtetan Minbiziaren kontrako elkarteak, Gautenak eta Elhuyar-ek euren proiektuak garatzeko”**



**Arturo Alvarado**

Rector de Universidad MONDRAGÓN México (UMx)

**“En UMx tenemos casi 3.000 estudiantes en nuestra oferta educativa, a los que hay que sumar los 9.300 profesionales que en 2024 han pasado por nuestras aulas”**







**TU LANKIDE 2024:**  
**kooperatiben aktualitatea**

TU Lankidek gaurkotasun kooperatiboa hainbat euskarritan jarraitu du: hiru hilean behingo paperezko aldizkaria, webgunea ([www.tulankide.com](http://www.tulankide.com)), sare sozialak eta buletinak.

**TU LANKIDE 2024:**  
**la actualidad cooperativa**

TU Lankide ha seguido la actualidad cooperativa desde diversos soportes: revista en papel de carácter trimestral, web ([www.tulankide.com](http://www.tulankide.com)), redes sociales y boletines.



**628**  
Lehenengo hiruhilekoa / 1er trimestre.



**629**  
Bigarren hiruhilekoa / 2ndo trimestre.



**630**  
Hirugarren hiruhilekoa / 3er trimestre.



**631**  
Laugarren hiruhilekoa / 4º trimestre.



tulankide.com

232.000

bititari 2024an  
visitas en 2024

4.300

harpidedun buletin  
suscripciones al boletín

+8.300

jarraitzaile sare sozialetan  
seguidores en redes sociales



### LagunAro: firme compromiso a favor del euskera

Hasta que el pasado otoño recibieran el certificado de euskera Bikain, LagunAro ha hecho un buen camino desde su fundación para garantizar el euskera a cooperativas, pensionistas, mutualistas y beneficiarios.



2025, el año para reivindicar un modelo de empresa más justo y equitativo



Isea lanza el proyecto LANAI para medir el impacto de la Inteligencia Artificial en el futuro del trabajo y del mundo laboral



Un proyecto innovador para la conciliación intergeneracional en Arrasate



"Eroski apuesta por el talento interno y estoy muy agradecida por la posibilidad que me han dado"



Copreci, premio al mejor proveedor en Calidad, Sostenibilidad e Innovación



CLAVES DE LA EXPERIENCIA COOPERATIVA DE MONDRAGON



Centro Stirling evoluciona y se convierte en Mondragon Components Competence Center (MC3)



Bexen Cardío impulsa la primera red de farmacias cardioprotégidas de Gipuzkoa



Récord de visitas en MONDRAGON: 3.196 personas en 2024



¡FELIZ AÑO NUEVO!




Profesionales STEM sumergen en los retos de los océanos

+ noticias

¡Suscríbete a nuestros boletines!

#### Opinión



#### Ausolan y la Dana de Valencia

Rosa Giné es la gerente del ámbito norte de Ausolan, entre cuyo radio se incluye también la gestión de la zona de Levante donde emplean en torno a 1.000 personas.



---

**TU**Lankide 2024 iruditan  
en imágenes

